

**DROGAMENPEKOTASUNEN PREBENTZIOA  
EGITEKO ARRASATEKO PLANA  
2004/2005/2006/2007/2008**

**ARRASATEKO PLANA**

## AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	3
2. LEGE EREMUA.....	4
3. ESKU-HARTZEKO BIDEAK ETA FILOSOFIA.....	11
ESKU-HARTZE ILDO NAGUSIAK.....	12
IRIZPIDE NAGUSIAK.....	13
4. DROGA KONTSUMOAREN INGURUKO EGOERA.....	15
Tabako kontsumoa.....	17
Alkohol kontsumoa.....	18
Psikofarmakoak:.....	18
Cannabis kontsumoa.....	19
Gainontzeko droga ilegalen kontsumoa:.....	19
Droga kontsumoak zein testuingurutan ematen diren.....	20
5. BALIABIDEEN AZTERKETA.....	21
6. ESKU-HARTZE PROGRAMA.....	22
➤ <i>AURREZAINITZA KOMUNITARIOA</i> .....	22
<b>PREBENTZIOA SENDIAREN EREMUAN</b> .....	22
PROIEKTUA: GURASOen ESKOLA.....	24
PROIEKTUA: HITZALDIAK.....	26
PROIEKTUA: GURASOENDAKO ALDIZKARIA.....	27
<b>PREBENTZIOA IKASTETXEETAN</b> .....	28
PROIEKTUA: DBH; DBHO eta LANBIDE HASTAPENAREKIN ESKU-HARTZE PROIEKTUA.....	29
PROIEKTUA: OSASUN HEZIKETA HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZAN.....	31
PROIEKTUA: IKASTETXEETAKO ORDEZKARIEKIN KOORDINAZIO BILERAK.....	33
PROIEKTUA: IRAKASLEEN PRESTAKUNTZA IRAUNKORRA PREBENTZIOAREN INGURUAN.....	34
PROIEKTUA: ARRISKU EGOERAN DAUDEN NERABEEKIN ESKU-HARTZEA.....	35
<b>PREBENTZIOA AISIALDIAN</b> .....	36
PROIEKTUA: NERABEZAROA ETA AISIALDIA (gaztetxokoak).....	37
PROIEKTUA: GAUEKO AISIALDIA ETA ARRISKU – KALTEEN GUTXITZEA.....	38
PROIEKTUA: GIZARTE HEZKUNTZAKO ESKU-HARTZEA EREMU IREKIAN.....	39
<b>INFORMAZIOA ETA SENTSIBILIZAZIOA</b> .....	40
PROIEKTUA: INFORMAZIO ETA SENTSIBILIZAZIO JARDUERAK.....	41
PROIEKTUA: DOKUMENTAZIO ZENTROA.....	42
➤ <i>ZUZENEKO ARRETA</i> .....	43
<b>ORIENTAZIO ETA INFORMAZIO ZERBITZUA</b> .....	43
PROIEKTUA: ORIENTAZIO ETA INFORMAZIO ZERBITZUA.....	44
7. PLANAREN EBALUAZIOA.....	46

## ***1. SARRERA***

Drogamenpekotasunen prebentziorako V. Plan honen helburua da zehaztea Arrasateko Udalerrian Drogamenpekotasunen esparruan egingo den esku-hartzea hurrengo 5 urteetan.

Horretarako, Arrasateko Udalak bideratuko duen esku-hartzeak oinarri gisa izango dituen lan ildo eta irizpideak zehaztu dira hemen, baita plangintza honek barne hartzen dituen programa eta proiektuak eta horiek ebaluatzeko tresnak ere.

Plan honen esku-hartze eremua komunitatea izanik, berau garatzeko ezinbestekoa izango da herriko eragileen partehartzea eta elkarlana, hala nola, parte hartuko dute familiak, ikastetxeek, hezitzaileek, teknikariek eta profesionalek, gobernuz kanpoko erakundeek, elkarteek, hedabideek, eta oro har edozein herritarrek.

## **2. LEGE EREMUA**

Drogamenpektasunei dagokienez, hauek osatzen dute Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioaren jardura finkatzen duen araudia: batetik, Drogamenpektasun gaietan prebentzioa, asistentzia eta gizarteratzeari buruzko ekainaren 25eko 18/98 Legeak, bestetik, Gizarte Zerbitzuen urriaren 18ko 5/1996 Legeak eta Justizia, Ekonomia, Lana eta Gizarte Segurantzaren Sailaren apirilaren 22ko 91/1997 Dekretuak.

**Urriaren 18ko gizarte zerbitzuen 5/1996 legea:** Helburua da herritar guztiek Gizarte Zerbitzuak jasotzeko duten eskubidea bermatzea, “marjinazioaren eta ezberdintasun sozialaren kausei aurre hartu eta desagerrarazteko, gizarteratzea sustatzeko eta pertsona eta kolektiboen garapen osoari laguntzeko”.

Horretarako, Gizarte Zerbitzuen legeak uste du, gizarte zerbitzuetako sistemaren printzipio moduan, lehenetsuna eman behar zaiola marjinazioaren edo bizitza autonomoa mugatzen duten kausen prebentzioari. Legeak ezartzen dituen gainerako printzipio orokorrak: partehartze soziala, elkartasuna, berdintasuna, unibertsaltasuna, normalizazioa, herri administrazioaren erantzukizuna...

Halaber, bizi kalitatearekin (kultura, hezkuntza, hirigintza, osasunekoak,...) lotuta dauden zerbitzuekin koordinatzeko beharra jasotzen du Gizarte Zerbitzuen legeak, helburu horiek betetzeko.

**Justizia, Ekonomia, Lana eta Gizarte Segurantzaren sailaren apirilaren 22ko 91/1997 Dekretua:** dekretu horren bidez erregulatzen dira drogamenpektasunen prebentzio komunitarioko programa espezifikoak egiteko laguntzak, toki erakundeetan dagozkien talde teknikoak mantentzeko laguntzak eta Drogamenpektasunen Tokiko Planak. Udal Plana honela definitzen du aipatu dugun dekretu horrek: “Drogamenpektasunen esparruan egiten diren programa, eta ekintza estrukturatu, koordinatu eta planifikatuak batzen dituen eta dagokion herri organoak onartzen dituen agiria.”

Hortaz, toki eremuan drogamenpektasunak osotasunean aztertu eta gero, dokumentu horrek planifikatzen ditu udaleko sailen apartazioak eta herritarren ekimenak, eta hor bertan sartzen dira, batetik, Plana kudeatzeko behar diren koordinazio estrategiak eta, bestetik, esku-hartzeko metodologiak eta egindako ekintzak ebaluatzeko tresnak.

Halako ezaugarriak dituen Plan batek bi zutabetan du oinarria:

- toki administrazioaren eskumen arloa
- komunitatearen inplikazioa, udaleko sail eta zerbitzuena nahiz herritarren ekimenena.

**Drogamenpekotasun gaietan prebentzio, asistentzia eta gizarteratzeari buruzko ekainaren 25eko 18/1998 Legea:** 1988ko azaroaren 11n, Eusko Jaurlaritzak aho batez onartu zuen Drogamenpekotasun gaietan Prebentzio, Asistentzia eta Gizarteratzeari buruzko 15/88 Legea, drogamenpekotasunen fenomenoaren dela-eta EAEn gizarte eta erakunde jardunak erregulatzeko dituen arlo filosofikoa, antolamendukoa eta araudikoa ezartzeko.

Hala ere, eta kontuan izanik drogamenpekotasun gaietako jardun politketan sortutako aldaketak, legealdia errealitate berrira egokitzea beharrezkoa zen. Zer horretan ekainaren 25eko 18/1998 Legea sortu zuten.

Lege berri horrek jarraibideak sartu zituen artikuluetan; Eusko Jaurlaritzako Drogamenpekotasun Batzordeak 1994ko ekainaren 30ean hartutako akordioan datoz horiek.

Legearen edukiak ezartzen ditu: filosofia, jardun programak ezartzean jarraitu behar diren oinarriko irizpideak, jardun horiek lagunduko dituen antolaketa egitura, eta zer eskumen eta erantzukizun dagokion erakunde bakoitzari.

Testu berriak 15/1988 Legea aldatu zuen, bai gai berriak jaso zituelako, bai egiturako aldaketak egin zituelako. Horrela, euskal gizarteari drogamenpekotasuna ulertzeko eta drogamenpekotasunetan eragiteko modu bat proposatzen dio.

Zioak azaltzean, hauxe adierazten du, “drogamenpekotasunen fenomenoaren ulertzeko eredu eta esku-hartzeko eredu, estrategia komunitario deitu dezakeguna, eta ezaugarri nagusi hauek ditu”:

1.- **Globalizazioa**, izan ere, alkohol edariak, tabakoa, psikofarmakoak eta legeko deitutakoak behar ez bezala erabili edo neurritz kanpo hartzeagatik sortutako arazoak hainbat arlotatik heltzen zaie: osasunarenetik, gizartearenetik, hezkuntzarenetik, delituarenetik, ekonomiarenetik etabar.

2.- **Normalizazioa**, drogamenpekotasunetatik sortzen diren premiei aurre egiteko, euskal gizarteak antzeko beharriari arantzuteko dituen ohiko egituren bidez ( osasunekoak, hezkuntzakoak, gizarte-zerbitzuak, polizia...) baliatzea proposatzen da.

3.- **Plangintza**, era koordinatuan, plangintzaz eta etengabe, drogen eskaintzaren prebentzioa, asistentzia, gizarteratzea eta kontrola jorratzeko behar diren arloko esku-hartzeen aniztasuna antolatzen behartzen baititu herri administrazioak.

4.- **Parte hartzea**, bereziki fenomenoaren ordezkari sozialekin kontatzeko beharra eta herritarrek parte hartzeko bideak jarritz, drogei konponbideak bilatzeko ezinbestekoa baita.

Legea idazterakoan, Nazioarteko, Estatuko, Autonomia Erkidegoko eta Europako Batasuneko legedia izan dira kontuan, baita Munduko Osasun Erakundeak emandako irizpideak jarraitu ere. Legeria orokorrean esparruko legea da, eta bereziki osasun arloa eta gizarte zerbitzuenera zuzenduta dago. Autonomia estatutuak Euskal Autonomia Erkidegoari hainbat arlotan ematen dizkion eskumenei baitan dago kokatua legea.

Jarraian, gaur egun indarrean dagoen ekainaren 25eko 18/1998 legearen hainbat artikulua aipatzen dira.

## **1.KAPITULUA: LEGEAREN HELBURUA**

### **1.artikulua.-**Legearen helburua

1.- Autonomia Estatutuak Euskal Autonomia Erkidegoaren esku jartzen dituen eskumenen barruan, eta lurralde eremu horretarako, hainbat jarduera arautu nahi ditu lege honek, hain zuzen ere drogomenpekotasunei aurrea hartu, drogamenpekoei lagundu eta pertsona horiek gizarteratzea bultzatzeko.

2.- Era berean, legeak droga kontsumitzaile ez diren pertsonak ere babestu nahi ditu, beste batzuek droga kontsumitzeak kalte eragin diezaiekelako.

### **2. artikulua.-** Definizio batzuk

- **Aurrezaintza edo aurrea hartzea:** drogak modu desegokian kontsumitzea ekar dezaketen pertsonaren baitako, gizarteko edo kulturako eragileak aldatu nahi dituzten jarduerak. Jarduera horiek helburu hauek izango dituzte:

1.- Drogen eskaria eta kontsumoa murriztea.

2.- Gizartean dagoen droga-eskaintza murriztu edo mugatzea.

3.- Drogak kontsumitzeagatik sor daitezkeen ondorioak murriztea.

4.- Drogak hartzen hasteko arrisku-egoerak sor ditzaketen arrazoi sozio-ekonomikoak edo lan arlokoak adieraztea, bai eta drogamenpekotasunen gertakariak duen eragina eta garrantzi soziala murriztea ere, ekintzarako proposamenak aurkeztuz eta gure gizarteko alderik behartsuenetan arreta berezia ipiniz.

- **Gizarteratzea:** dena delako pertsona bere ohiko ingurunean pertsona arduratsu eta autonomo gisa egokitzeko prozesua; prozesu horretan gizarteratzeko gaitasunak berreskuratzen ditu norbanakoak, eta gizartean ere aldaketak egiten dira, drogamenpekotasunak dituzten pertsonak onartzeko.
- **Kalteak murriztea:** drogak hartzeko zenbait moduk edo horiek eragindako patologiek sor ditzaketen ondorio bereziki kaltegarriak murrizteko estrategia batzuk.
- **Arriskuak gutxitzea:** drogak erabiltzeari lotuta, osasunarentzat bereziki larriak izan daitezkeen ondorioak areagotzea eragin dezaketen jokabideak aldatzeko asmoa duten estrategiak.

## **II. KAPITULUA: DROGAMENPEKOTASUNAK AURREZAINZEA**

### **3. artikulua.- Helburu orokorrak**

Aginte publikoen eginkizuna da, bakoitzaren eskumenen barruan, helburu hauek dituzten programak eta jarduerak garatzea, sustatzea, laguntzea, koordinatzea eta kontrolatzea:

- a) Herritar guztiei drogei buruzko informazio egokia ematea.
- b) Herritarrei osasunarentzat mesedegarriak diren ohiturak sortzeko heziketa eskaintzea. Hezkuntza programa horietan bereziki kontuan hartua izango da gazteria.
- c) Drogamenpekotasunei aurrea hartzeko profesionalak prestatzea.
- d) Mendekotasuna eragin dezaketen gaiak kontsumitzea ekar dezaketen gizarteko baldintzetan parte hartzea; bereziki kontuan hartuko da emakumeek eta gizonek drogak kontsumitzea dakarten eragileak ezberdinak direla. Kontsumo horren ondorioak ere kontuan hartuko dira.
- e) Elkarte aurrezaintzako programak abian jarri eta garatu daitezten bultzatzea, drogamenpekotasunei aurrea hartzeko politikak eraginkorrak izateko.
- f) Drogak kontsumitzearen ondorioz osasunari eragin dakioken kaltea saihesteko neurriak hartzea, kontuan izanik kalte hori kontsumitzaileak eta kontsumitzaile ez denak ere jasaten duela.
- g) Gizartean drogak agertzea, sustatzea eta saltzea alde batera uztea eta, bestela, mugatzea.
- h) Administrazio publikoen eta arazoarekin zerikusia duten gizataldeen artean, droga kontsumoa aurrezaintzea xede izango duten jarduerak koordinatu eta bultzatzea.

## **1GO ATALA. DROGAK KONTSUMITZEA PREBENTZIO NEURRI OROKORRAK**

### **4. artikulua.- Elkarte aurrezaintza**

1.- Udalek drogamenpekotasunen Udal Plana idatziko dute, lege honetako 36.4 artikuluan erabakitakoaz bat eta erregelamendu bidez zehaztuko den moduan.

2.-Horretarako:

- a) Drogamenpekotasunei aurrea hartzeko elkarte aurrezaintzarako programak garatzea bultzatuko dute.
- b) Lege honetako 37.1 artikuluan araututako drogamenpekotasunen Planetik sortutako prebentzio programak eta jarduerak bultzatu, koordinatu eta, beharrezkoa bada,

betearaziko dituzte ikastetxeetan, gazte, kultura eta kirol elkarteetan eta profesional taldeetan, bai eta lantokietan ere.

- c) Drogamenpekoatasunaren arloan, gizarte ekimenarekin eta boluntarioekin elkarlanean jardutea bultzatuko dute, lege honetako IV. Kapituluko 3. Atalean erabakitakoaz bat.

3.-Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak udalekin elkarlan egokian jarduteko bideak jarriko ditu, hain zuzen ere drogamenpekoatasunen elkarte prebentzioko ekintzak aurrera eramateko.

## **5. artikulua.- Informazioa**

1.- Drogamenpekoatasunen berri (arrazoien eta ondorioen berri) emateko, estrategiak landuko dituzte administrazio publikoek, droga kontsumoari buruzko jarrerak eta ohiturak aldatzeko asmoz. Horretarako, hedabideei, bereziki eta lehentasunez jabetza publikokoei, elkarlanean jarduteko eskatuko diete, gizarteak osasunaren aldeko iritzia izatea bultzatzeko.

## **7. artikulua.- Profesionalen etengabeko prestakuntza**

Osasun arloko langileek, gizarte zerbitzuetaoek, hezitzaileek, Autonomia Erkidegoko poliziak, gizarteko beste bitartekari batzuek nahiz beste edozein motatako langileek, drogamenpekoatasunekin zerikusia duten jardueretan baldin badihardute, diziplinarteko prestakuntza jaso beharko dute, eta Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek zehaztuko dute zein programa izango diren horiek. Horretarako, administrazioak berak dituen baliabideez gainera, eskatu ahal izango du prestakuntzako proiektuak egiten dituzten gizarteko ekimenen edo elkarteen laguntza.

## **8. artikulua.- Gizarte baldintzetan esku-hartzea**

1.- Urriaren 18ko 5/1996 legean, Gizarte Zerbitzuenean, 3. Artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, zerbitzu horiek drogamenpekoatasunei aurrea hartzeko egingo dituzten jarduerak lehentasunezkoztat joko dira eta indartu egin beharko dira dauden gizarte zerbitzuen programetan.

2.- Aginte publikoek, bakoitzak bere eskumenen barruan, prebentzio jarduerak bultzatuko dituzte, bizitzeko baldintzak hobetzeko eta droga kontsumitzea eragiten duten norbanakoaren baitako eta familiako bazterkeriaren eragileak gainditzeko. Horretarako, hauek egingo dituzte:

- a) Arriskua duten gizataldeak biltzea, taldeetan elkartzea bultzatuko dute, eta arreta berezia jarriko da adin txikikoekin eta gazteekin; horren ondorioz, gazteak eta taldeetan elkartzea bultzatuko da, bai eta zerbaitetan jarduteko, denbora libreko, kiroleko edo kulturako programetan parte har dezaten ere.
- b) Gizarte eta kultura arloko zerbitzuak eskaintzerakoan, zerbitzu horien ekipamenduaren plangintzan, kontuan eduki beharko dute gizatalde guztientzako aukerak eskaini beharko direla, berdintasunean eta oreka gordeta, drogamenpekoatasunak agertzea dakarten eragile guztiak alde batera uzteko.

- c) Gazteen artean lanbide heziketako beste aukera batzuk bultzatuko dituzte, lehen lanpostua aurkitzeko aukerak eta autoenplegua edo enpresak sortzeko bideak, eskolan aurrera egiterik izan ez dutenek eta lana aurkitzeko biderik ez dutenek izan ez dezaten, horregatik, drogaren mende geratzeko arrisku handiagoa.
- d) Hirigintzako plangintza egin eta lan horiek aurrera eramaterakoan, zainduko dute elkartasun, berdintasun eta arrazionaltasunezko irizpideak erabil daitezela, hirigintzaren garapena orekatua izan dadin eta horrek drogamenpekotasunak agertzea eragin dezaketen beste eragile batzuk gainditzeko eragile gisa jardun dezan.

### **III KAPITULUA: DROGAMENPEKOEI LAGUNTZEA ETA GIZARTERATZEA**

#### **26. artikulua.- Irizpide orokorrak**

1.- Aginte publikoen eginkizuna izango da, bakoitzak bere eskumenen esparruan diharduela, Euskal Autonomia Erkidegoan drogamenpekoei zuzenduta burutzen diren ekintzek helburu hauek izango dituztela ziurtatzea:

- a) Droga menpekoek jasotzen duten osasun eta gizarte arloko laguntza gainerako herritarrek jasotzen dutena bezalakoa izatea.
- b) Laguntza hori osasun zerbitzuek eta gizarte zerbitzuek elkarrekin koordinatuta eskaintzea.

#### **2. ATALA: GIZARTERATZEA**

#### **33. artikulua.- Oinarrizko printzipioak eta jarduteko irizpideak**

- Gizarte zerbitzuena izango da droga menpekoek dituzten gizarteko premiei erantzuteko eginkizuna eta pertsona horiei gizarteratzen laguntzeko neurriak aurrera eramateko eginkizuna, eta gizarte zerbitzuek lan hori urriaren 18ko 5/1996 Legean, Gizarte Zerbitzuenean, orokorrean jasotako printzipioekin bat eraman beharko dute aurrera.
- Gai horri lotuta, gizarte zerbitzuek lehentasun hauek izango dituzte:
  - a) Drogamenpekotasuna duten emakume eta gizonak baztertzea, pertsona horiek bereizkeria jasatea eta horien bizitza autonomoari mugak jartzea eragiten duten arazoiei aurrea hartzea.
  - b) Drogamenpekoei bere ingurunean (pertsonarenean berarenean, familiakoan eta gizartekoan) barneratzen saiatzea, gizarteratzen saiatzeaz gainera.
  - c) Drogamenpekoei lan munduan sartzen laguntzeko, pertsona horiek lanen bat aurkitzeko duten aukera areagotzeko programak aurrera eramatea. Bereziki honelako jarduerak bultzatuko dira: enplegua lortzeko plan pertsonalak, lan egiteko norberaren ezaugarriak garatzea, lanbideei buruzko informazioa ematea enplegua lortzeko, eta lana lehiatsu

bilatzeko teknikak. Era berean, droga menpekoak trebatzeko eta lan munduan errazago sartzeko, heziketa planak ezarriko dira.

- d) Drogamenpekoek osasun zerbitzuetan bazterkeria jasan dezaten saihestea. Pertsona horiek zerbitzu publiko guztietan normalizatuta dauden jardueren baitan egongo dira.
- e) Gazteei dagokienez, taldeak osatzeko ekintzak bultzatzea; horren bidez, aurrezaintzako lan garrantzitsua burutzeaz gainera, tresna baliagarria edukiko da, bazterkeria jasaten duten gazteak gizarteratzeko. Helburu hori lortzeko, bereziki hezkuntzako hainbat programa orokor aprobetxatuko dira, esate baterako lanbiderako gaikuntza lortzekoak, enpleguak, etxebizitzak eta gizarte zerbitzuen sarekoak.

3.- Droga menpekoak benetan gizarteratzea bultzatzeko asmoz, aginte publikoek, gizarte zerbitzuen sistemaren bidez, beharrezko pausoak bultzatuko dituzte, gizarteak drogamenpekotasuna ulertzeko duen modua aldatzeko, droga menpekoen ezaugarri bereziak eta pertsona horientzako beharrezko zerbitzuak onartu daitezten.

4.- Administrazio publikoek ebaluatu eta egokitu egingo dituzte gizarteratzera zuzendutako baliabideak, hala nola tutoretzapeko etxebizitzak, lanerako trebatzeko eta laguntza juridiko eta psiko-sozialerako tailerrak.

### **3. ESKU-HARTZEKO BIDEAK ETA FILOSOFIA**

Arrasateko Drogamenpekotasunen Udal Planak kontuan hartzen du eredu teoriko biopsikosoziala, psikologia, gizarte eta kultura faktoreen elkarreraginean oinarritua. Horrela, ezin ditugu ulertu pertsonak egiten dituzten droga kontsumoak, pertsona horiek bizi duten testuinguru bio, psiko soziala aztertu gabe.

Pertsonak erakusten dituzten autoestima eta autonomia arazoak, porrot eta frustrazio bizipenak, itxaropen eta ilusio falta, gizarte harremanetarako trebetasun handirik eza, baloreen krisia, erabakiak hartzeko zailtasunak eta abar bezain garrantzitsuak dira gizarte, familia eta eskola testuinguruak, izan ere, faktore garrantzitsuak dira drogen mendekotasun arazoak edo kontsumo desegokia ulertzeko.

Ezberdintasun sozialak eta ekonomikoak, marjinazioa, talde bateko sentimendua garatzeko zailtasunak, norbere nortasuna garatzeko erreferentzia falta, norbanakoen balorea, kontsumokeriak... sinesgarritasunik eta koherentziarik ez daukaten ereduak, bereiztu, marjinatu, agintekeriaz agindu egiten duten hezkuntza estiloak eta abar, horiek guztiek mugatu egiten dituzte pertsonaren heldutasuna, autonomia eta gizartratzea, eta arrisku faktoreak dira kontsumo desegokia egiteko orduan.

Eredu honetan drogamenpekotasun fenomenoak ez da gizarte arazoaren kausa, baizik eta testuinguru (bio-psiko-sozial) desegoki jakin batzuetan gertatzen diren prozesuen ondorioa. Sozializazio prozesuan gertatzen diren ezberdintasunak, desorekak eta zailtasunak erakusten dituzte mendekotasun arazoak.

Droga kontsumoak eta mendekotasunen prebentzioak ari garenean, ez dugu bistaz galdu behar mendekotasuna edo erabilera desegokiak eman daitezkeela pertsonen kontsumoan. Beraz, plan honen helburu nagusia da mendekotasunak edo kontsumo arriskutsuak eman ez daitezen aukera eta baliabideak eskaini eta funtzionaraztea. Eta horretarako, pertsonaren eremuetan esku hartuko dute plan honetako ekintzek, pertsonetan eta komunitatean: sendietan, eskoletan, komunitatean, lantokietan...

Bestalde, planaren ekintzak saiatuko dira erabilera ez arriskutsu edo kaltegarriak horretan mantendu daitezen. Ez dugu ahaztu behar pertsonaren erabakia errespetatu egin behar dugula, eta Plan honen bidez saiatuko gara erabaki hau ahalik eta osasuntsu edo ez-kaltegarriena izaten. Plan honek baliabide funtzionala izan nahi du pertsonentzat.

Jakin badakigu, droga kontsumoa penalizatuz gero ez dugula ezer lortuko, eta prebentzio jardueraren bide nagusia pertsonen protagonismoa bultzatzea dela, banan banako eta taldeko prozesuen bidez, Prebentzio ekintzaren subjektu aktiboa izan dadin. Hau da, subjektu aktibo bihurtzea, testuinguru sozial berri baten alde, gizarte ongizateko maila handiagoak eta gizartratzekeko prozesuak sustatzeko, pertsona autonomo, kritikoa eta erantzule gisa.

Droga Gaietako Aholkularitza Kontseiluaren Prebentzio Batzorde Teknikoak V. plana egiteko proposatutako esku-hartze ildo eta irizpide nagusiak jarraitzen ditu Herriko plan honek:

## **ESKU-HARTZE ILDO NAGUSIAK**

1.- Eskola prebentzioa finkatzea, ziurtatzea eta orokortzea, osasunerako heziketa curriculumean sartzeko, Haur Hezkuntzatik Derrigorrezko Hezkuntzaren Ondorengora arte. Lantalde egonkorrak sustatuko dira, esku-hartzeko programa eta protokolo sistematiko eta ebaluagarriak hezkuntza komunitate osoarekin eta inguru soziokulturalarekin koordinatzen dituzten ikastetxeetan.

2.- Familia esparruan hezkuntza trebakuntza eta partehartzea helburu duten jarduerak sustatzea, prebentzioan garrantzi berezia dute eta.

3.- Prebentzioa sustatzea testuinguru hurbiletan, batez ere jolas eta olgetakoetan, pertsonen eta haiek ordezkatzeko dituzten elkarteek duten protagonismoa subjektu gisa -eta ez esku-hartzearen hartzaile soil gisa- ziurtatuko duen esku-hartze gizarte-hezkuntzetakoa eta gizartekoaren bidez.

4.- Lan esparruan prebentziorako esku-hartzeen egituraren integrazioa garatzea eta sustatzea, ikerketa, prestakuntza eta horren etengabeko ebaluazioa egingo duena. Hor bertan honako hauek hartuko dute parte: sindikatu eta enpresa erakundeak, enpresa batzordeak, Administrazioak berak eta, norbere izenean edo taldean, lan esparruan osasunaren sustapenean diharduen beste edozein eragilek.

5.- Lan eta ikerketa ildoak bultzatzea, hedabideetan drogen fenomenoaren tratamendu objektiboa eta zentzuzkoa egiteko eta bertatik ohitura osasungarriak bultzatzeko.

6.- Prebentziorako plan, programa eta proiektuak egin, garatu eta ebaluatzeko garaian, genero-ikuspegiaren integrazioa bultzatzea. Horretarako, batetik, estatistikak eta azterlanak egokitzea sustatuko da, emakumeen eta gizonen beharren berri jakiteko, eta bestetik, horretan diharduten profesionalak trebatuko dira, haien prestakuntzan eta haien lanetan genero-ikuspegia txertatzea ahalbidetuko duten tresna metodologikoak sortu eta hedatzea.

7.- Pertsona nerabeek, gazteek eta ordezkatzeko dituzten elkarteek, beraiek barne hartzen dituzten prebentzio programen diseinuan eta abiarazte prozesuan parte hartzea eta trebakuntza hobetzea helburu dituzten jarduerak bultzatzea.

8.- Giza talde guztiak barne hartuko dituen prebentziorako esku-hartzeen egitura dimentsio-aniztasunaren oinarriaren arabera osatzea, hau da, dagoeneko egiten ari direnetan oinarrituta eta egituratuta. Batez ere landuko dira arrisku faktore gehien dituzten egoeren inguruan lan egiteko helburua dutenak edota kontsumoa behin eta berriz gertatzen deneko horiek (bigarren mailako prebentzioa, selektiboa eta gomendatua; arriskuen eta kalteen murrizketa).

9.- Prebentzioa bultzatzea, ikerketa aplikatuaren eta profesionalen prestakuntzaren sustapenaren bidez eta azterketa eta ebaluazioa esku-hartze guztien osagarri gisa txertatzea ziurtatuz, modu sistematikoan aurrera egiteko: ekimen egokienak finkatu, desegokiak alde batera utzi, eta esku-hartzerako behar eta esparru berriak atzeman, programa osagarri berriak garatzeko, osotasun-printzipioa behar dituen eduki guztiez betetzearen.

## IRIZPIDE NAGUSIAK

- **Hurbiltze orokorra:** Prebentzioaren egitekoa, drogak diren gizarte fenomenoari atxikitako arazoak osotasunean oinarritzat hartuko ditu. Bai prebentzio espezifiko nahiz espezifiko ez dena, kontuan hartuko ditu bai substantzia, pertsona eta kontsumoaren testuingurua.
- **Gaitzea:** Prebentzioaren egiteko bat izango da pertsonak eta giza taldeak gaitzea, gai hauetan askatasuna eta ardura garatu dezaten: kontrol mekanismoak, autokontrol eta autoerregulazioa osasunaren arloan.
- **Dimentsio komunitarioa:** prebentzio ekintzarentzako komunitatea da eremu egokiena, bertan egituratuko direlarik prebentzio esku-hartzeak, testuinguru osasuntsuak eratzeko. Testuinguru horretan, prebentzioari dagozkion egoera pertsonalak nahiz sozialak barneratuko dira.
- **Eraginkortasuna - eragingarritasuna:** beharrezkoa da prebentzio ekintzetan ezartzen diren helburuak lortuko direla bermatzea, azterketa sistematiko baten bidez. Horrela, eraginkortasuna eta eragingarritasuna neurtzea eta optimizatzea posible izango da hobekuntza iraunkor baten onuran.
- **Espezifikotasuna:** politika prebentiboek, populazio orokorrera nahiz sektore espezifikoetara zuzenduak direnak, diseinatu behar dira drogak diren fenomenoan barneratzen diren errealitate guztiei erantzuteko (substantzia, kontsumitzaile potentzialak, gizarte inguruak...)
- **Genero ikuspegiaren barneraketa:** Gizon eta emakumeen arteko ezberdintasunak ezabatu eta berdintasuna lortzea izango da prebentzio ekintza eta politiken helburuetako bat.
- **Kultura aniztasuna:** gaur egun ematen diren globalizazio ekonomiko/kulturala, inmigrazioaren fenomeno eta substantzia berrien agertzea dela eta, Euskal Herrian drogen fenomenoaren inguruko kultura desberdinak bizi dira elkarrekin. Beharrezkoa izango da hori kontuan izatea, prebentzio ekintzak egokitzea desberdintasun hori errespetatuz.
- **Dimentsioaniztasuna:** mendekotasun egoera batean faktore ugari eragiten dute. Hori dela eta, dimentsioaniztasuna izan beharko du egoera horri aurre egingo dion esku-hartzeak. Eraginkortasuna lortzeko esku-hartzeak hainbat ezaugarri barneratu behar dituzte: esku-hartzeak planifikatuak, koordinatuak eta osagarriak izan behar dira; instantzietatik

bultzatuak (gizarte erakundeak, entitate publiko eta pribatuak, zerbitzuak eta baliabideak); eremu zientifikoetatik modu integratzailean bideratuak; arlo, gune eta maila guztiak hartuko dituztenak, orokor eta komunitarioenetatik banakoenetara.

- **Normalizazioa:** drogamenpekotasunetatik bideraturiko arazoek gizarte egitura normalizatuen bidez erantzungo zaie. Horrela, arazotsuak ez diren jokaerak arazotsu bihurtzea galaraziko dugu, eta desberdintasun kultural, sozial eta pertsonalekiko ekintza prebentibo integratzaile eta errespetuzkoak bultzatu. Normalizazioak, bestalde, drogamenpekotasunen fenomenoarekiko hurbiltze arrazional, solidario eta koherente bat bultzatuko du.
- **Optimizazioa:** drogen erabilerari eta kontsumoari buruzko benetako informazioa eskaini beharko da, aurreiritziak alde batera utzi, prebentzioa modu egoki eta eragingarrian bultzatzeko asmoz.
- **Gizarte partehartzea:** prebentzioaren esku-hartzeetan, gizartearen sektoreen partehartzea bultzatu eta erraztu beharko da: erakundeak, elkarteak, GKEak, ikastetxeak...
- **Prebentzioaren lehentasuna:** esku-hartze guztiak prebentzioa hartuko dute ardatz, batez ere kontrola eta fiskalizazioari dagokionez.

## 4. DROGA KONTSUMOAREN INGURUKO EGOERA

Pertsonak zibilizazioaren aro guztietan erabili izan dituzte kontzientzia edota umorea aldatzeko substantziak. Gure gizartean, erabat barneratuta dago substantzien erabilera; horren frogarria da gizarte maila guztietan kontsumitzaile ugari egotea.

Substantzia psikoaktiboen kontsumoa –drogak- gertaera konplexua da eta, ulertzeko, pertsonaren, substantziaren eta kontsumitzeko testuinguru sozial, kultural eta legalaren arteko elkarrekin hartu behar dira kontuan.

Hau da droga: behin gure organismora sartuta, kontzientzia edota umorea aldatzen duen substantzia oro, legezkoa edo legez kanpokoa izanda ere. Substantzia bakoitzaren ezaugarri farmakologikoei, kontsumorako ereduak, eraginetatik espero daitekeenak, kontsumitzailearen bizi-mailak eta drogaren estatus legalak aurretik zehazten dute erabilera kulturala (kalteak murrizteko topaketak. Bilbo. 2002).

Kontsumoen egoeraren diagnostikoa egitea ez da batere erraza. Arrasateren kasuan, ez dago azterketa espezifikorik horren inguruan, baina inguruko herrialdeetan egin diren ikerketen arabera, oso antzekoak dira herrialdeetan ematen diren kontsumoak eta ikerketa orokorretan ondorioztatzen diren kontsumo datuak. Beraz, Euskadin egin diren ikerketa orokorretan oinarrituko gara.

Ez dugu atal hau soilik gazteen kontsumoan enfokatu nahi, jakin badakigulako kontsumo arazoak edo mendekotasunekoak hainbat adinetan ematen direla. Nahiz eta prebentzio ekintza gehienak gazte eta adin txikikoei zuzentzen zaizkien, prebentzio hitzak daukan konnotazioari jarraiki, garrantzitsua iruditzen zaigu gainontzeko kontsumoak bistaz ez galtzea eta adi egotea.

Kontsumoak ere desberdinak izan daitezke hainbat faktore kontuan hartuz gero: dosia, kantitatea, administrazio bidea, irudikapen mentalak, espero ditugunak, drogen irudi soziala... Hori guztia hartu behar da kontuan, eta jakin, kasu bakoitzean eman daitezkeen kontsumoak ezin daitezkeela parekatu.

Beraz, kontsumo guztietan 3 faktore hartu behar dira kontuan: pertsona, testuingurua eta substantzia.

- **PERTSONA:**

- *Espero ditugunak*: kontsumoaz alde aurretik ditugun espektatibek gorputza efektu batera edo beste batera bideratzen dute.
- *Egoera animikoa*: kontsumoarekin areagotu egiten da hori, nahiz egoera euforikoetan izan edo depresio egoeretan.

- *Desberdintasun pertsonalak*: pertsona bakoitzak modu desberdinean erantzun dezake substantzia beraren aurrean.
- *Genero desberdintasunak* ere desberdintasunak eragin ditzake.
- *Norberarekiko ezagutza mailak* ere eragin dezake kontsumoaren ondorioetan.
- **TESTUINGURUA:**
  - *Lekua*: non kontsumitzen den.
  - Zein lekutan kontsumitzen den.
  - Leku horretan *zenbat pertsona* dagoen. Masifikazioa dagoen edo ez.
  - *Oztopo fisikoak*: beroa, urik ez...
  - *Inguruko estimulak*: automobilak, errepideak..
- **SUBSTANTZIA:**
  - Beti egongo dira aurreikusi ezin daitezkeen faktoreak substantzietan.
  - Substantziaren inguruan daukagun *informazioa*.
  - *Dosia*
  - Substantziaren *portzentaia*.
  - Kontsumo *bideak*: errea, esnifatua, irentsia, xiringa bidezkoa.
  - *Elkarreraginak*: hainbat substantzia nahastea.

Horien guztien arabera, kontuan hartu behar da bai kontsumitzaileak eta bai kontsumoak mota askotakoak izan daitezkeela:

- **KONTSUMITZAILE MOTAK:**
  - *Noizbehinkako kontsumitzailea*
  - *Ohiko kontsumitzailea*
  - *Neurriz gaineko kontsumitzailea*
  - Bestalde, beste faktore bat hartu behar da kontuan, eta hori da **polikontsumoa** ematen den edo ez.

- **KONTSUMO MOTAK:**

- **Kontsumo esperimentalak:** Batez ere gazte eta nerabeek egiten dute, logikoa den bezala, adinarengatik eta adinaren ezaugarri propioengatik.
- **Kontsumo neurtuak:** noizbehinkako edo ohiko kontsumoak izan arren, pertsonaren egoera pertsonal, sozial eta laboralari kalterik sortzen ez dioten kontsumoak izan daitezke.
- **Kontsumo arazotsuak:** kontsumoak pertsonari nolabaiteko arazoak ondorioztatzen dizkio bere bizitzan.
- **Mendekotasuna:** kontsumoek bizitza baldintzatzen duten egoera izango litzateke, eta kalte eta arrisku ugari ekar diezaioke pertsonari, autonomia eta burujabetasun pertsonalaren galtzea gertatu daiteke eta.

Horrela, zaila eta arriskatua izan daiteke kontsumoa estatistika hutsera edo datu hutsetara soilik zedarritzea, orain arte adierazitako faktoreak kontuan hartu gabe. Ezin ditugu kasuen berezitasunak galdu.

Datu estatistikoak adierazleak dira, nolabaiteko joerak adierazten dituztenak, baina ez gara horietara itsu-itsuan lotu behar, baizik eta egunerokotasunerako praktikarako erabilgarri bihurtu.

“Drogamenpekotasunen Euskal Behatokiaren 2002ko Txostena” oinarritzat hartuz, horko datuak erabiliko ditugu, eta beste txosten batzuetako datuekin osatu. Hala ere, Plan honek bost urterako bizitza duela kontuan izanik, datuok uneoro eguneratzen joan beharko dugu, argitalpenak, txostenak eta prestakuntza jarraituaren bidez.

Bestalde, Katalunian egin zen “Sistema de Observación Continua”-ren proiektua Euskadin aurrera ateratzen ari da Droga Gaietarako Zuzendaritza, eta datu zehatzik argitaratu ez duten arren, etorkizunean datu eta informazio iturri garrantzitsua izango da, batez ere gazteen kontsumoen inguruan.

Hemen eskaintzen diren datuak ez dira gazteen datuak soilik, eta hori kontuan hartzekoa da, kontuan izanik, gazteen kontsumoari dagokionez, posible dela datuak beste batzuk izatea.

Hauek dira Txosten horretatik atera ditugun datu esanguratsuenak:

### **Tabako kontsumoa**

- Tabakoa da EAEn bigarren droga zabalduena. Pertsonen % 32,6 ohiko erretzaileak dira, eta substantzia horren kontsumoan beheranzko joera adierazten du. Hala ere, gazteen taldea soilik hartuz, adierazten da geroz eta gazte gehiagok erretzen duela, eta 15 urtetik behera dago hasten direnen adina.
- Ohiko erretzaile gehienak 20-40 urte bitartean daude. Hala ere, jaisten doa erretzen hasteko adina.

- Azken urteotan tabakoaren kontsumoa emakumeen artean zabaldu da neurri handiagoan, batez ere 20-34 urte bitarteko emakumeen artean. Gizonezkoak dira erretzaile gehienak, baina joera hori adin txikiagoenetan berdindu egiten da. Emakume gutxik mantentzen dute erretzeko joera 50 urtetik gora.
- Hala ere, datu baikor bat: euskal herritarren % 14,3 erretzaile ohiak dira. Horiek batez ere 20-40 adin tartean aurkitzen dira. Ez dago erretzaile ohiarik 25 urtetik beherakoan artean.

### **Alkohol kontsumoa**

- Alkoholari dagokionez, substantzia honen kontsumoa ia masiboa da EAEn. Euskaldunen % 93k kontsumitu dute alkohola noizbait, eta % 30,7 ohiko kontsumitzaileak dira.
- Substantzia honen kontsumoa gizonezkoen artean handiagoa da oraindik. Gizonezkoen % 31,2k egunero edo jaiegun gehienetan kontsumitzen du, eta emakumezkoen % 20,5ek.
- Edale ohiak % 10,7 dira eta horien artean gehienak adineko pertsonak dira, osasunaren beheraldian onduz edateari utzi diotenak nagusiki.
- Asteburuetako kontsumoa igo egin da.
- 20-24 urte bitarteko adin tartean, alkoholaren kontsumoa beste tarteetan baino handiagoa da, bai gizonezko edo emakumezkoetan. Kontsumo hori gutxitzen doa adin tarte handitzen doan heinean.
- Gazteen kontsumoak emakumezkoetan eta gizonezkoetan ez dira esanguratsuki desberdintzen. Generoak baino, badirudi alkoholaren kasuan adinak baldintzatzen duela gehiago kontsumoa.
- 15-34 urte tartean kontsumo handiena ematen da, baita ere jai egunetan edaten dutenen kopuruari dagokionez ere, adin tarte horietan jai egunak bizitza sozialaren alderdi garrantzitsua baitira.
- Eguneroko kontsumitzaile gehienak 50-64 urte bitartean daude, edaria lagungarri gastronomiko moduan hartzen dutelako, dibertimenduzko lagungarri baino.

### **Psikofarmakoak:**

- Psikofarmakoak ere kontuan hartu beharreko substantziak izango dira, haien egoera bereziarengatik ez ditugulako aztertzen, eta daukaten garrantziaz ahazten gara.
- Badirudi emakumeen artean kontsumoa handiagoa dela gizonezkoetan baino.
- Bestalde, droga horien kontsumo pautak, dosiak, helburuak eta konnotazio sozialak oso bereziak dira, eta horregatik arreta berezia eskaini beharko zaie prebentzio ekintzetan.

- Lasaigarri eta antidepresiboak dira gehien erabiliak.
- Mendekotasun arazo ugari dago, eta asko ezkutuan.

### **Cannabis kontsumoa**

- Cannabisa gehien kontsumitzen den legez kanpoko substantzia da (euskaldunon artean ez ezik, Espainian eta Europan ere bai).
- Euskal Herritarren % 23k kontsumitu dute kalamua.
- Kontsumitzen hasi direnak nahiz ohiko kontsumitzaileak 20-24 urte bitartekoak dira. Adina handitu ahala, kontsumoa jaitsi egiten da.
- 15-34 urte bitartekoen % 50ak probatu du Cannabisa.
- 15-19 urtekoen proportzioa goraka doa, horrek esan nahi du jaisten doala kontsumitzen hasteko adina.
- Gizonezkoetan kontsumoa zabalduagoa dago.
- Gazteen artean taldeko kontsumoa nabarmenagoa da. Ez dute arriskua hautematen horrelako kontsumoetan.
- Arrasateko ikastetxeetan sumatu dute kontsumoak gora egin duela.
- Cannabisa ere geroago eta gehiago laboratzen dute.

### **Gainontzeko droga ilegalen kontsumoa:**

- Cannabisa alde batera utziz, **anfetamina** da EAEn gehien kontsumitzen den legez kanpoko substantzia. Anfetaminarik erabiliena **Speed**-a da.
- Hirugarren postuan **kokaina** dago, eta gora egin du horren kontsumoak. Oso zabaldurik dagoen substantzia da, eta hasiera adina ere jaisten doa. Nahiz eta esnifatua izan biderik erabiliena, azken datuen arabera, handitu egin da xiringa bidezko kontsumoa. Gero **LSD** dago. Aluzinogenoak gora egin dutela adierazten da, eta batez ere aluzinogeno naturalen erabilera: mongien kasua, Euskadin ohikoak dira.
- Eta uste denaren aurka, gero **sintesi drogak** egongo lirateke. Horietariko kontsumituena **Extasia** izango litzateke. Badirudi substantzia horren erabileran egonkortze bat eman dela, baino bestalde, kontsumoan hasteko adina jaitsiz doa, eta substantzia probatu du 15-29 bitarteko pertsonen % 11k. Gazteriaren % 3ak soilik mantentzen du ohiko kontsumoa; beraz, esperimentazio droga batez ari gara.

- **Ketaminaren** presentzia ere ez da ahaztu behar, nahiz eta horren inguruan dauden ikerketak oraindik nahiko berriak izan eta datuak eztabaidagarriak izan. Kontsumoa uste baino handiago dela dirudi, eta hainbat talde eta adinetan ematen ari dira. Hautsa esnifaturia da kontsumo bide nagusia. Erabiltzaileak polikonsumitzaileak dira, eta datu bezala esanguratsua da ez ohiko drogen kontsumoa egiten dutenen portzentaia: LSD, GHB, Heroina. Dibertimenduzko helburuetara loturik dago kontsumoa. Hala ere, substantzia horrekin dagoen arriskua hautematea handia da erabiltzaileetan.
- **Heroinaren kontsumoa.** Orain arte bezala jaisten doan arren, badirudi kontsumo esperimentalak ere ematen direla, eta ez dela guztiz desagertu. Fenomeno berezia izan daiteke eta kontuan hartzekoa etorkizunean.
- Beraz, esan daiteke, cannabisaren ondoren, droga estimulagarriak eta dibertimenduzko erabilerak dutela arrakasta gehien.
- Gehien kontsumitzen den adina 20-24 bitartean dago, baina kontsumoa jaisten doa adinak gora egiten duen neurrian. Joera hori aurkakoa da Heroinaren kasuan, kontsumo gehien 35-49 urte bitartekoen artean izaten baita, justu Heroinaren fenomeno gertatu zen uneko garaikideak zirenak.

### **Droga kontsumoak zein testuingurutan ematen diren.**

- Batez ere **polikontsumoko** egoera bat ematen da. Funtzionala da droga kontsumoa, eta hartarako, droga bat baino gehiago kontsumitu edo droga aldatzeko joera daukate kontsumitzaile gehienek, eraginak konbinatu eta sekuentziatzeko.
- Droga kontsumoak, kasu gehienetan, **aisialdiko** eremuetan eta talde egoeretan sortzen dira. Gazteen artean, droga kontsumoak integrazio eta identifikazio elementuak dira, eta heldutasuneranzko errito bihurtzen dira. **Psikofarmakoek** egoera eta motibazioa ez da aisialdira atxikitzen, eta hori kontuan izan behar da.
- **Generoak** ere eragina izan du drogamenpekotasunen fenomenoaren inguruan. Droga guztien erabiltzaile gehienak gizonezkoak dira, agian psikofarmakoak izan ezik. Hori kontuan hartu beharreko eragile bat da, eta prebentzio esku-hartzeetan barneratu beharra dago.
- Drogak kontsumitzen hasteko **adina**, guztietan, murriztu egin da. Hala ere, adina handitzen doan heinean kontsumoak uzten joaten dira.
- Drogen kontsumoak bizitza normal jarraitzen uzten diete gehienetan, eta **asteburuetakoko kontsumo** bihurtzen dira. Kontsumoak, beraz, etena dutenak dira.
- Hala ere, badirudi drogen inguruko **informazioa** ez dela nahikoa.
- **Alkoholak** droga zabalduena izaten jarraitzen du, ia nahasketa guztietan presente dagoena eta testuinguru guztietan agertzen dena. Onartuena izaten jarraitzen du. **Cannabisaren** normalizazioa ere nabarmena da eta oso baloratua den droga izaten jarraitzen du. **Kokainaren** gorakada ere garrantzitsua da, eta baita **ketaminaren** kontsumoa agertu izana.

## **- 5. BALIABIDEEN AZTERKETA**

Baliabideei dagokienez, Prebentzio zerbitzua da baliabide ugari behar dituen zerbitzua, bai pertsonalak eta bai zerbitzukoak. Prebentzio Zerbitzua bera ere baliabide bat da. Hala ere, zerbitzuaren egitekoak aurrera eramateko eskuragarri dauden baliabideak aztertuko ditugu:

- UDAL BALIABIDEAK: Udaleko drogamenpekotasunen prebentzio zerbitzua eta sailtako teknikari eta baliabide espezifikoak.

- KOMUNITATEKO BALIABIDEAK: Arrasateko herrian dauden ikastetxeak, elkarteak, osasun zerbitzuak, GKE, pertsonak...eta abar.

Komunitateko baliabideak egokiak badira ere, sarea indartzeko beharra dago, hau da, elkarlana garatzeko ibilbideak zehaztu.

- EAeko BALIABIDEAK: Tratamendu zentroak, elkarteak, Institutuzioak...

Oro har, esan daiteke baliabideak ez direla nahi bezain ugari eta egokiak, eta askotan zaila dela biderapena eta elkarlana. Baliabide asko hiriburuetan zentratzean, sumatzen da, batez ere herri edo eskualde eremuan, tratamendurako baliabideen falta, eta horrek zaildu egiten du droga mendekoak osatzeko prozesua.

## **6. ESKU-HARTZE PROGRAMA**

### ➤ **AURREZAINZA KOMUNITARIOA**

**Programaren erakunde sustatzailea:** Arrasateko Udala.  
**Kokapena:** Gizarte Sustapeneko Saila  
**Programaren zenbakia:** 1  
**Programaren izendapena:** **PREBENTZIOA SENDIAREN EREMUAN**

<b>PREBENTZIOA SENDIAREN EREMUAN</b>	
<b>Helburu orokorrak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gurasoentzat hausnartu eta entzuteko espazioak sortzea, bizipenak normalizatu, objektibatu eta kudeatzeko, seme-alabak heltzeko prozesuei buruz eta desorientazioa sortzen duten egoerei buruz. Familia ekintzaile eta gune prebentiboa izatea azken baten.</li> <li>- Bideak eta sareak sortzea prebentzio egintzako proposamenak garatzen parte hartu eta inplikatu daitezen gurasoak.</li> <li>- Gurasoen artean arrisku faktoreak agertzea erraztu dezaketen jarrera eta portaerak aldarazi eta babes faktoreak bultzatzea.</li> <li>- Gurasoei hezkuntza ekintzako proposamenak eta estrategiak ematea, besteak beste, autonomia, autoestimua, erantzukizuna, heldutasun afektiboa, babes giroa eta komunikazio positiboa sustatzeko.</li> <li>- Erabakiak hartu eta liskarrak konpontzeko prozesuak argitzea, familia gunean egonezina eta desorientazioa sortzen dituzten egoeretan eta gaietan.</li> </ul>
<b>Deskribapena</b>	<p><b>Laburpena:</b> Sendia pertsonaren hezkuntza eta garapen gune erabakigarriena eta garrantzitsuena izanik, bultzatuko da sendiei eta bereziki gurasoei modu positibo eta prebentiboan garatzea beraien baliabideak eta erantzukizunak. Horretarako, beharrezkoa izango da kontuan izatea sendien ezaugarrien dibertsitatea eta haien arabera diseinatu eta aurrera eramatea hainbat programa eta ekintza.</p> <p><b>Arloa:</b> Prebentzio unibertsala  <b>Norentzat:</b> gurasoak  <b>Esparrua:</b> sendia  <b>Estrategia:</b> komunitarioa  <b>Koordinazioa:</b> Gurasoen Elkartekin, Ikastetxeekin, Gizarte Zerbitzuekin...  <b>Kolaborazioa:</b> Hezkuntza Sailarekin, Gizarte Sustapen saileko teknikariek, ACABEko adituekin, Udal Sexologia bulegoko adituekin, gor-mutuen itzultzailearekin, Arrasaten Hezkidetza proiektua aurrera eramaten duten adituekin etabar.</p>

<b>Proiektuak</b>	<p>➤ <u>Aurrezaintza unibertsala</u></p> <ol style="list-style-type: none"><li>1. Gurasoen Eskola</li><li>2. Hitzaldiak</li><li>3. Gurasoentzako aldizkaria</li></ol>
-------------------	---

**PROGRAMA: PREBENTZIOA SENDIAREN EREMUAN****PROIEKTUA: GURASOen ESKOLA**

<b>Helburu orokorra</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Seme-alaben garapen pertsonalarekin zerikusia duten gaien inguruko oinarrizko edukiak eta esku-hartzeko irizpideak eskaintzea gurasoei, familian egonezina eta desorientazioa sortzen dituzten egoerak gainditzeko.</li><li>- Zailtasun edo arrisku egoera konkretuen antzeman eta bideratzea.</li></ul>
<b>Helburu espezifikoak</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Adin tarteak kontuan izanda (honek dakartzan ezaugarriak direla eta: 0-4;5-9;10-14;15-18) taldeak sortzea Guraso Eskola aurrera eramateko.</li><li>- Talde horiei denboran jarraipena egitea, hezkuntza ekintza progresiboa izan dadin eta ez isolatua. Hori egiteko, HASTAPEN eta SAKONTZE mailak antolatzea. Sakontze mailaren helburua da Hastapen mailako gaiak gehiago lantzea edo berriei ekitea.</li><li>- Besteak beste, adin tarte bakoitzari egokituta gai hauek lantzea: garapenaren psikologia, autoestima, arauak, komunikazioa, drogen inguruko informazioa, sexualitatea, hezkidetzeta eta anorexia-bulimia. Hala ere, gaiak taldeko interesetara egokituko dira.</li><li>- Saio bakoitzaren amaieran 15 minutuko arreta pertsonalizatua eskaintzea pertsona bakoitzari, gai partikularrak lantzeko aukera emateko eta, behar izanez gero, orientazio egokia egiteko.</li><li>- Gor-mutuek edota edozein elbarritasun duten pertsonak aukera izatea tailer horietan parte hartzeko, gainontzeko gurasoek bezala.</li></ul>
<b>Aurreikusitako ekintzak</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- HASTAPEN MAILARI dagokionez, herrian eta ikastetxeetan bereziki Guraso Eskola zabaltzea, gurasoek parte har dezaten. Horretarako, informazio guztia azaltzen duen orri bat eskainiko zaie. Arrasateko komunikabideak ere erabiliko dira horretarako.</li><li>- SAKONTZE mailari dagokionez, HASTAPEN mailan parte hartu duten taldeetako pertsonen, aukera ematen zaie sakontze mailan parte hartzeko. Hastapen mailakoei ebaluazio prozesu bat egiten zaie, Sakontze mailan hainbat aldaketa edo berrikuntza sartzeko. Sakontze mailan, talde berdinak mantentzen saiatuko da.</li><li>- Ikastaroaren lehenengo saioan, ikastaroan landuko diren gaiak azalduko dira, eta partaideek landu nahi dituzten gaien inguruko proposamena jasoko da.</li><li>- Ikastaroaren erdi aldera eta amaieran ebaluazioa egingo da.</li><li>- Gorrak direnentzat itzultzaile zerbitzua eskaintzen da. Bestalde, saiatuko gara lekua egokia izaten elbarrientzat.</li></ul>
<b>Ebaluazio adierazleak</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Adin tarte bakoitzeko sortutako talde kopurua</li><li>- Talde bakoitzean parte hartzen duten pertsona kopurua.</li><li>- Ikastaroa utzi duten gurasoen kopurua, eta zergatia.</li></ul>

- SAKONTZE mailan jarraitzen duten pertsonen kopurua HASTAPEN mailan zeuden pertsona kopuruarekin alderatua.
- SAKONTZE mailakoen ebaluazio berezia, denborako prozesuak eragin ditzakeen aldaketak kuantifikatzeko: etxeko giroaren hobekuntza, sendiak arazoen konponketan baliabide egokiagoak izatea ...
- Partaideen asetze maila, landutako gaiak, profesionala, ikastaroaren antolaketa, metodologia, taldeko giroa, parte hartzea... etabarren inguruan.
- Asistentzia
- Taldearen izaera: parte hartu duten eta parte hartu ez duten sektore identifikagarriak: gurasoen ezaugarriak: sexua, adina, seme-alaben adina, ikastetxea, lanbidea, hizkuntza...
- Partehartzaileek prozesuan jarraitzeko eskaria zenbaterainokoa den.

**PROGRAMA: PREBENTZIOA SENDIAREN EREMUAN**

**PROIEKTUA: HITZALDIAK**

<b>Helburu operatiboa</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Gurasoei zuzenduta, hitzaldi eran gurasoen interesekoak diren gaiak lantzea, Guraso Eskolan motibazio edo denbora faltagatik parte hartzen ez duten gurasoengana ere iristeko.</li></ul>
<b>Helburu espezifikoak</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Ikasturtean banaturik, hitzaldiak bi edo hiru hilean behin izatea.</li><li>- Saio bakoitzeko gai bat lantzea, horretarako Guraso Eskoletan gehien eskatzen diren gaiak izan daitezke hizpide.</li><li>- Gai bakoitzean aditua eta erakargarria den pertsonaren bat ekartzea.</li></ul>
<b>Aurreikusitako ekintzak</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Gaiak aukeratu: guraso eskoletan gehien aukeratzen dituzten gaiak erreferentzia gisa hartu; gainontzeko teknikarien ekarpenen berri jakin; ikastetxe eta guraso elkarte bakoitzaren ekarpena ezagutu...</li><li>- Ikasturte bakoitzean gaitegi bat eta egun posibleak zehaztu eta gaiak landuko dituzten profesionalak aukeratu.</li><li>- Seme-alaben adin tarteak kontuan izanda, desberdinak izango dira gaiak, eta deialdian zehaztuko da hori.</li><li>- Komunikabide eta ikastetxeen bidez, hitzaldien berri ematea herri guztiari orokorrean eta gurasoei bereziki.</li></ul>
<b>Ebaluazio adierazleak</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Hitzaldietan zenbat pertsonak parte hartu duten.</li><li>- Zein hitzalditan egon den pertsona gehien, eta hausnartu zergatik den hori.</li><li>- Bertaratutakoek zenbat ekarpen edo galdera egin duten eta erantzundakoaren satisfazio maila.</li><li>- Hitzaldian saioa utzi dutenen kopurua.</li><li>- Bertaratutakoen ezaugarriak: adina, sexua...</li></ul>

**PROGRAMA: PREBENTZIOA SENDIAREN EREMUAN**

**PROIEKTUA: GURASOENDAKO ALDIZKARIA**

<b>Helburu operatiboa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gurasoei seme-alaben heziketarekin zerikusia duten gaien inguruko informazioa eskura ematea, Guraso Eskolan edota gurasoei zuzendutako hitzaldietan motibazio edo denbora faltagatik parte hartzen ez duten gurasoenagana ere iritsiz.</li> </ul>
<b>Helburu espezifikoak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Aldizkaria interaktiboa izatea; hau da, gurasoek gugana zuzentzeko aukera izatea, bai gaiak lantzeko eskatu edo galdera zehatzak planteatu.</li> <li>- Ikastetxeek eta guraso elkarteek proiektuan parte hartzea.</li> <li>- Prebentzio zerbitzuaren eta gurasoei zuzenduta egiten diren ekintzen inguruko informazioa zabaltzea aldizkarian.</li> <li>- Aldizkaria hiru hilean behin ateratzea, eta adin tarte bakoitzeko (0-4;5-9;10-14;15-18) gai bat landu.</li> <li>- Aldizkarian atal bat sortzea, gurasoen galderei erantzuteko.</li> </ul>
<b>Aurreikusitako ekintzak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Lehendabizi, ALE PILOTO bat egitea.</li> <li>- Aukeratu lehen zenbakian aterako diren gaiak eta harremanetan jartzea gaiak landuko dituzten profesionalekin, eta lankidetzaz ezarri.</li> <li>- Aldizkarian, Prebentzio Zerbitzuaren inguruko informazioa ere eskainiko da, eta horra zuzentzeko helbideak eskainiko zaizkie gurasoei, kezka eta galderak bideratzeko eta bai zuzenean beraiekin edo aldizkariaren bidez argitzeko ere.</li> <li>- Behar diren gauzak zehaztea maketazio eta inprimaketa lana egin behar duten enpresekin.</li> <li>- Aldizkaria Arrasateko guraso guztiei banatuko zaie postaz. Bestalde, liburutegian ere ale batzuk egongo dira gurasoen eskura.</li> <li>- Lehenengo zenbaki honetan, orri bat sartuko da. Orri horretan gurasoek adierazi beharko dute aldizkaria jasotzen jarraitzeko interesa duten edo ez, eta orria udaletxera bidaliko dute.</li> <li>- Jasotako erantzunaren arabera erabakiak hartuko dira, aldizkariaren izaeraren eta jarraipenaren inguruan.</li> </ul>
<b>Ebaluazio adierazleak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Prebentzio Zerbitzuarekin harremanetan jartzen diren pertsonen kopurua, eta agertzen duten iritzien nondik norakoak.</li> <li>- Gurasoen kezkei erantzuteko atalera bideratuta, egondako galdera kopurua eta mota.</li> <li>- Aldizkaria jasotzeko interesa agertzen duten pertsonen kopurua</li> <li>- Aldizkariari ematen zaion erabilera</li> <li>- Liburutegian aldizkaria erabili duten pertsonen kopurua eta satisfazio maila.</li> <li>- Ikastetxeetako guraso elkarten inplikazio maila, eta aldizkariaren inguruan duten iritzia.</li> </ul>

**Programaren erakunde sustatzailea:** Arrasateko Udala.  
**Kokapena:** Gizarte Sustapeneko Saila  
**Programaren zenbakia:** 2  
**Programaren izendapena:** PREBENTZIOA IKASTETXEETAN

<b>PREBENTZIOA IKASTETXEETAN</b>	
<b>Helburu orokorrak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikastetxeetan haur eta gazteen jarrera osasungarriak eta mendekotasunekiko prebentzio jarrerak garatu eta suspertzeko prebentzio programak aurrera eramatea, drogamenpekotasunak nahiz osasungarriak ez diren beste egoera batzuk ez izateko. Pertsona heldu eta autonomoak garatzea da azken helburua, norbere bizitzaren jabe izatea modu zorientatuan eta arduratsuan.</li> <li>- Ikastetxeei gai horren inguruan baliagarriak izan daitezkeen programen, materialen eta baliabide didaktikoen inguruko informazioa eta baliabide horiek esku-hartzeko laguntza ematea.</li> <li>- Droga-mendekotasunen inguruko informazioa, aholkularitza eta prestakuntza ematea ikastetxeei.</li> </ul>
<b>Deskribapena</b>	<p><b>Laburpena:</b> Ikastetxeetan prebentzioaren alorrean ikasleen nahiz irakasleen prestakuntza garatuko duten programa, ekintzak eta ildoak aurrera eramatea. Hezkuntza prozesuaren parte diren ikasleei eta irakasleei tresna erabilgarriak eskaini eta lankidetzaz sortzea bilatzen da, haien baliabide pertsonalak modu positiboan eta hezitzailean garatzeko.</p> <p><b>Arloa:</b> prebentzio unibertsala eta selektiboa; arriskuen eta kalteen gutxitzea  <b>Norentzat:</b> ikasleei eta hezitzaileei  <b>Esparrua:</b> eskola  <b>Koordinazioa eta kolaborazioa:</b> ikastetxeko eragile guztiekin (orientatzaileak, tutoreak, zuzendaria...) eta hainbat aditurekin edo elkarterekin; Hezkuntza sailarekin; Kultura sailarekin; Sexologia zerbitzuko adituekin...</p> <p><b>Estrategia:</b> komunitarioa</p>
<b>Proiektuak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ <u>Aurrezaintza unibertsala</u> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. DBH;DBHO eta Lanbide Hastapenarekin esku-hartze proiektua.</li> <li>2. Osasun Heziketa Haur eta Lehen Hezkuntzan.</li> <li>3. Ikastetxeetako ordezkariekin koordinazio bilerak.</li> <li>4. Irakasleen prestakuntza iraunkorra prebentzioaren inguruan.</li> </ol> </li> <li>➤ <u>Aurrezaintza selektiboa</u> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Arrisku egoeran dauden nerabeekin esku-hartzea.</li> </ol> </li> </ul>

**PROGRAMA: PREBENTZIOA IKASTETXEETAN**

**PROIEKTUA: DBH; DBHO eta LANBIDE HASTAPENAREKIN ESKU-HARTZE PROIEKTUA**

<p><b>Helburu operatiboa</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Nerabean egoeretan eta baliabideetan modu baikorren eragiteko programak aurrera eramatea. Haien arazoei aurre egiteko trebetasunak garatu, irtenbide sortzaileak aurkitu eta gizaki independente, erantzule, arrazional, autokritiko eta autonomo izateko garapen osoa erraztea.</li> </ul>
<p><b>Helburu espezifikoak</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikastetxe bakoitzak, nerabeek igaroko dituzten mailai dagokienez, prebentzio ibilbidea eraikitzea, eta maila bakoitzean lortu nahi diren helburuak eta ibilbideak finkatu.</li> <li>- Helburuok lortzeko, ikastetxe bakoitzak aurrera eramango dituen prebentzio programa estandar nahiz ez estandarrak finkatu eta garatzea.</li> <li>- Ikastetxeetako ordezkariekin egindako koordinazio bileretan adostu eta zehaztutako ekintzak aurrera eramatea.</li> </ul>
<p><b>Aurreikusitako ekintzak</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikastetxeetako ordezkariekin ikasturtean gutxi gorabehera 4 bilera egitea.</li> <li>- Koordinazio bileretan, ikastetxeen beharrak eta proposamenak jaso eta ekintza ildoak eta esku-hartzeak adostu eta finkatu.</li> <li>- Ikastetxeetako ordezkariekin ohiko prebentzio programetan parte hartzea konfirmatu (Irudi Biziak, Arriskua eta Alkohola...).</li> <li>- Ikastetxeetako ordezkariari ikasleei zuzenduriko programa eta baliabide berrien inguruko informazioa eman, eta programetan ikastetxeen partaidetza zehaztu.</li> <li>- Ordezkariekin programak aurrera eramateko egin beharrekoak zehaztu, eta koordinazioa mantendu sortzen diren behar eta egoerei erantzuteko.</li> <li>- Programen ebaluazioa egiten zaie ikasle eta irakasleei.</li> <li>- Datorren urterako jarraipena erabakitzen da, eta jarraipenaren ezaugarriak finkatzen dira: aldaketak, zer mantendu...</li> </ul>

<b>Ebaluazio adierazleak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikastetxeetako ordezkariekin egindako bilera kopurua, eta bileretan parte hartu duten ordezkari kopurua.</li> <li>- DBH, DBHO eta Lanbide Hastapena eskaintzen duten zenbat ikastetxetan eramaten dituzten aurrera prebentzioarekin zerikusia daukaten esku-hartzeak. Kopuruok erabateko datuekin alderatu eta portzentajeak atera.</li> <li>- Prebentzio programetan parte hartzen duten ikasleen, irakasleen, orientatzaileen... kopurua.</li> <li>- Urtez urte ikasleen, irakasleen, orientatzaileen... kopurua gehitu edo gutxitu egiten den.</li> <li>- Ikasleek esku-hartzean erakusten duten interesa.</li> <li>- Irakasleek, orientatzaileek... materiala eta esku-hartze zehatzen inguruan agertzen duten iritzia</li> <li>- Zein den esku-hartzearen hedapena ikastetxeetan, eta ikasturtean hartara eskaintzen diren ordu eta saioak.</li> <li>- Arazoak eta kezak non eta zerekin azaltzen diren</li> <li>- Ikasleek esku-hartze eta materialarekiko agertzen duten iritzia</li> <li>- Ikastetxeak programan parte hartzen jarraitzea</li> </ul>
------------------------------	---

<b>PROGRAMA: PREBENTZIOA IKASTETXEETAN</b>	
<b>PROIEKTUA: OSASUN HEZIKETA HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZAN</b>	
<b>Helburu operatiboa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikastetxeetan haurrei heldutasun psikoafektiboa lortzen eta oinarrizko balore eta osasun ohiturak barneratzen lagunduko dien ekintzak garatu.</li> </ul>
<b>Helburu espezifikoak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikastetxe bakoitzak, haurrek igaroko dituzten mailei dagokienez, prebentzio ibilbidea eraikitzea, eta maila bakoitzean lortu nahi diren helburuak eta ibilbideak finkatu.</li> <li>- Helburuok lortzeko, ikastetxe bakoitzak aurrera eramango dituen prebentzio programa estandar nahiz ez estandarrak finkatu eta garatzea.</li> <li>- Ikastetxeetako ordezkariekin egindako koordinazio bileretan adostu eta zehaztutako ekintzak aurrera eramatea.</li> <li>- Arrasateko Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasleei Balore eta Osasunerako Hezkuntza indartu eta garatzeko tresna didaktikoak eskaintzea ikasgelan.</li> </ul>
<b>Aurreikusitako ekintzak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikastetxeetako ordezkariekin 3 bilera egitea ikasturtean.</li> <li>- Koordinazio bileretan, ikastetxeen beharrak eta proposamenak jaso eta ekintza ildoak eta esku-hartzeak adostu eta finkatu.</li> <li>- Ikastetxeetako ordezkariekin ohiko prebentzio programetan parte hartzea konfirmatu (Osasunkume, Lagunekin Baratzea...).</li> <li>- Gaur egun argitaratuak dauden edo argitaratzen joan daitezkeen material edo programen berri izatea eta aldizka horien berri ematea ikastetxeei.</li> <li>- Ordezkariekin programak aurrera eramateko egin beharrekoak zehaztu, eta koordinazioa mantendu, sortzen diren behar eta egoerei erantzuteko.</li> <li>- Programen ebaluazioa egiten zaie ikasle eta irakasleei.</li> <li>- Datorren urterako jarraipena erabakitzen da, eta jarraipenaren ezaugarriak finkatzen dira: aldaketak, zer mantendu ...</li> </ul>
<b>Ebaluazio adierazleak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikastetxeetako ordezkariekin egindako bilera kopurua, eta bileretan parte hartu duten ordezkari kopurua.</li> <li>- Haur eta Lehen Hezkuntza eskaintzen duten zenbat ikastetxetan eramaten dituzten aurrera prebentzioarekin zerikusia daukaten esku-hartzeak. Kopuru</li> </ul>

	<p>horiek guztira ateratako datuekin alderatu eta portzentajeak atera.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikasturte bakoitzean, prebentzio programetan parte hartzen duten ikasle, irakasle, orientatzaile... etabarren kopurua</li> <li>- Urtez urte ikasleen, irakasleen etabarren kopurua gehitu edo gutxitu egiten den.</li> <li>- Ikasleek esku-hartzean erakusten duten interesa.</li> <li>- Irakasleek materiala eta esku-hartze jakinen inguruan agertzen duten iritzia.</li> <li>- Ikasleen gurasoek programaren inguruan duten jakintza eta iritzia.</li> <li>- Zein den esku-hartzearen hedapena ikastetxeetan, eta ikasturtean horretarako eskaintzen diren ordu eta saioak</li> <li>- Arazoak eta kezkak non eta zerekin azaltzen diren</li> <li>- Ikastetxeak programan parte hartzen jarraitzea</li> </ul>
--	---

<b>PROGRAMA: PREBENTZIOA IKASTETXEETAN</b>	
<b>PROIEKTUA: IKASTETXEETAKO ORDEZKARIEKIN KOORDINAZIO BILERAK</b>	
<b>Helburu operatiboa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikastetxeetan prebentzio arloan egiten diren ekintza eta ildoen inguruko hausnarketa eta azterketa bultzatzea. Prebentzio ekintzak garatzeko dauden beharrak identifikatu, irizpideak zehaztu eta programa zehatzei ekiteko aukerak aztertzea.</li> <li>- Ikastetxeak eta irakasleek beraien eragile prebentibo papera onartu eta guztion artean zedarritzea, horretarako baliabideak sortu, elkarbanatu eta optimizatuz.</li> </ul>
<b>Helburu espezifikoak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ziklo bakoitzak dituen behar eta ezaugarriei era egokian erantzuteko, koordinazio bilerak banatuak izatea, hau da: alde batetik Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeekin, eta bestalde DBH, DBHO eta Lanbide Hastapeneko ikastetxeekin.</li> <li>- ziklo bakoitzeko ordezkari bat zehaztea ikastetxe bakoitzak.</li> <li>- Bileretan jasotako aktaren bidez informazioa, formala eta denontzat, eskuragarria izatea.</li> <li>- Ordezkariek ikastetxean zabaltzea bileran esandakoa eta aktan jasotakoa, eta ekarpenak jasotzea.</li> <li>- Nahiz eta bilerak denboran banatuak izan, uneoro komunikazioa mantentzea, telefonoz, e-postaz ...</li> <li>- Ikastetxeen egoera eta une zehatzak denbora errealean jakitea.</li> <li>- Ikastetxeetan kasu edo talde jakin batekin ardura berezia badago, orientazio protokoloa zehaztea, Prebentzio Zerbitzuarengana jotzeko.</li> </ul>
<b>Aurreikusita ko ekintzak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Aldizkako bilerak egitea ikastetxe bakoitzeko Haur eta Lehen Hezkuntzako ordezkariekin: urtean hiru-lau bilera finkatzea (ikasturte hasieran, erdialdean eta amaieran), beharren arabera gehiago izan badaitezke ere.</li> <li>- Aldizkako bilerak egitea DBH, DOBH eta Lanbide Hastapeneko ordezkariekin: urtean hiru-lau bilera finkatzea (ikasturte hasieran, erdialdean eta amaieran), beharren arabera gehiago izan badaitezke ere.</li> <li>- Bileren aktak jaso, eta gero ikastetxeetara bidali informazioa, modu formalean zabaldu dadin ikastetxearen barnean.</li> </ul>
<b>Ebaluazio adierazleak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Zenbat ordezkari datozen bileretara, eta ea ikastetxe bakoitzetik gutxienez bat datorren.</li> <li>- Egindako bilera kopurua.</li> <li>- Lantzen diren gaiak, gero ikastetxeetara zabaltzen ote diren jakitea. Nola zabaltzen den.</li> <li>- Hurrengo baterako egiteko geratu diren ekintzak betetzen ote diren</li> <li>- Ordezkarien satisfazio maila, bileren efektibotasunaren inguruan</li> <li>- Prebentzio zerbitzua erabiltzea, ikastetxeen aldetik, ea egokiago edo maizago erabiltzen den, bileren ondorioz</li> </ul>

## PROGRAMA: PREBENTZIOA IKASTETXEETAN

### PROIEKTUA: IRAKASLEEN PRESTAKUNTZA IRAUNKORRA PREBENTZIOAREN INGURUAN

<b>Helburu operatiboa</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Formazioa eskaintzea ikastetxeetako irakasle eta orientatzaileentzako, ikasleentzako programak era egokian gauzatzeko, eta baita eguneroko gatazka eta egoerak modu hezgarri eta positiboan aurrera eramateko.</li></ul>
<b>Helburu espezifikoak</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Ezagutzea ikastetxeetan ematen diren gatazka edo zailtasun egoerak eta haiek gainditzeko bideratzen diren esku-hartzeak.</li><li>- Halako egoeretan irakasleek esku-hartzeko dituzten zailtasun eta beharrak identifikatzea.</li><li>- Ikastetxeekin eginiko koordinazioaren bidez, irakasleen eskaera, egoera eta beharrak ebaluatuz, guztion artean prestakuntza plan bat eratzea.</li></ul>
<b>Aurreikusita ko ekintzak</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Ikastetxe eta prebentzio zerbitzuaren artean prestakuntza plana diseinatu.</li><li>- Prestakuntza martxan jarri.</li><li>- Prozesuan zehar ebaluazioa egin partehartzaileekin eta beharrezko aldaketak egin.</li><li>- Amaierako ebaluazioa egin eta hurrengo ikasturterako prestakuntza planaren inguruan hausnartu eta proposamenak batu.</li></ul>
<b>Ebaluazio adierazleak</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Parte hartu duten irakasleen kopurua.</li><li>- Arrasateko zenbat ikastetxeek hartu duten parte.</li><li>- Bajarik egon ote den eta zergatik.</li><li>- Zein ziklotan dagoen eskaera edo behar gehien.</li><li>- Partehartzaileen satisfazio mailaren berri eta prestakuntza planaren inguruko iritzien berri jakitea.</li><li>- Hurrengo ikasturtean parte hartzaileen kopurua igo, jaitsi edo mantentzen den eta zergatiak aztertu.</li></ul>

## AURREZAINZA SELEKTIBOA

<b>PROGRAMA: PREBENTZIOA IKASTETXEETAN</b>	
<b>PROIEKTUA: ARRISKU EGOERAN DAUDEN NERABEEKIN ESKU-HARTZEA</b>	
<b>Helburu operatiboa</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Arrasateko ikastetxeetan, batez ere DBH, DBHO eta Lanbide Hastapenean, irakasleek arrisku egoeran egon daitekeen kasu partikular edo talderen bat hautematen dutenean, ikastetxe eta Prebentzio Zerbitzuaren artean aurrera eramatea esku-hartze zehatz eta planifikatua.</li></ul>
<b>Helburu espezifikoak</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Arrisku egoeran egon daitezkeen nerabeekin zuzeneko esku-hartzea egitea, hainbat egoera eta eduki lantzeko: gatazkak konpontzea, komunikazioa, autoestima, sexualitatea, nerabe izatearen sentimenduak, norbere ezagutza, kideekiko harremanak...</li><li>- Arrisku egoera, jarrera edo jokaerak izan ditzaketen nerabeekin orientazio lan bat egitea, egoera larriak edo arriskutsuak hautematen direnean.</li><li>- Substantzia jakin batzuen inguruan ematen diren kontsumo larri edo arriskutsuen kasuetan, esku-hartze zuzeneko eta espezifikoa egitea ikasle edo talde batekin.</li></ul>
<b>Aurreikusita ko ekintzak</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Ikastetxeekin aurrera eramaten diren koordinazio ibilbideen bidez, kasu jakinen inguruan elkarrizketak egiten dira.</li><li>- Kasuan inplikaturiko pertsona edo taldearen ezaugarriak ezagutu eta behar edo ezaugarrien diagnostiko bat egin ondoren, beharrezko eta egoki baloratzen den esku-hartzea planteatuko da ikastetxearen eta Prebentzio Zerbitzuaren artean.</li><li>- Esku-hartzea martxan jarriko da.</li><li>- Prozesuan zehar ebaluazioa egingo da, eta aldaketak behar izanez gero esku-hartzea egokitu egingo da.</li><li>- Prozesuaren amaieran ondorioak baloratuko dira eta etorkizunerako ekintza edo erabakiak finkatuko dira.</li></ul>
<b>Ebaluazio adierazleak</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Ardura gune zen portaera edo egoera, esku-hartzearen ondoren zenbateraino hobetu den.</li><li>- Zein datu edo egoera behagarri aldatu diren, eta arrisku egoeran hauteman ziren ikasle edo ikasleak berauek sumatu dezaketen aldaketaren inguruko datuak.</li><li>- Ikasle edo taldearen esku-hartzean inplikatu ziren eragile guztien balorazioa ezagutzea prozesuaren hasieran eta amaieran (tutore, orientatzaile, guraso...).</li></ul>

**Programaren erakunde sustatzailea:** Arrasateko Udala.  
**Kokapena:** Gizarte Sustapeneko Saila  
**Programaren zenbakia:** 3  
**Programaren izendapena:** PREBENTZIOA AISIALDIAN

<b>PREBENTZIOA AISIALDIAN</b>	
<b>Helburu orokorra</b>	- Gizarte hezkuntzako esku-hartzeak garatuz, aisialdia prebentzio gune bilakatzea
<b>Deskribapena</b>	<p><b>Laburpena:</b> Aisialdia prebentzio gune bilakatzeko, gizarte-hezkuntzako ekintzak garatzea gazteak egoten diren esparruetan, besteak beste, Gaztetxokoetan, tabernetan, diskoteketan, kalean eta abar.</p> <p><b>Arloa:</b> Prebentzio unibertsal eta selektiboa; arriskuen eta kalteen gutxitzea</p> <p><b>Norentzat:</b> nerabeak, gazteak, hezitzailek edo begiraleak</p> <p><b>Esparrua:</b> gazteak egoten diren lekuak</p> <p><b>Estrategia:</b> komunitarioa</p> <p><b>Koordinazioa:</b> Gazteria teknikaria, Aisialdiko begiraleekin...</p> <p><b>Kolaborazioa:</b> Aisialdi taldeekin, Ikastetxeekin, Unibertsitatearekin, gaztetxearekin eta abarrekin.</p>
<b>Proiektuak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ <u>Aurrezaintza unibertsala</u> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Nerabezaroa eta aisialdia (gaztetxokoak)</li> </ol> </li> <li>➤ <u>Aurrezaintza selektiboa</u> <ol style="list-style-type: none"> <li>2. Gaueko aisialdia eta arrisku-kalteen gutxitzea</li> <li>3. Gizarte hezkuntzako esku-hartzea eremu irekian</li> </ol> </li> </ul>

## AURREZAINNTZA UNIBERTSALA

<b>PROGRAMA: PREBENTZIOA AISIALDIAN</b>	
<b>PROIEKTUA: NERABEZAROA ETA AISIALDIA (gaztetxokoak)</b>	
<b>Helburu operatiboa</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Nerabeen aisialdia bilakatzea aukerez eta baliabideez betea egongo den prebentzio gune.</li></ul>
<b>Helburu espezifikoak</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Arrasateko Aisialdi orokorreko eta batez ere Gaztetxokoetako hezitzaileak prestatzea, drogamenpekotasunen prebentzio eta gizarte-hezkuntzako esku-hartzeak garatzeko.</li><li>- Nerabeentzako gaztetxokoaren sarean aisialdiko hezkuntza programetan, drogamenpekotasunen babes faktoreekin bat datozen esku-hartze bideak barneratzea.</li><li>- Koordinatu eta hausnartzeko guneak izatea gaztetxokoetako dinamizatzailerekin eta udal zerbitzuekin, arrisku sozialeko egoerak aldatzeko eta gizarte-hezkuntzako esku-hartze programak sortu, egin eta ebaluatzeko.</li></ul>
<b>Aurreikusitako ekintzak</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Koordinazio bilerak egitea, gaztetxokoetako dinamizatzaileren, Gazte Sailaren eta Prebentzio Zerbitzuaren artean.</li><li>- Bilera horien bidez, gaztetxokoetako egoera aztertu, dauden beharrak definitu, beharrezko esku-hartzeak planifikatu eta abian jarriko dira.</li><li>- Gero, koordinazioaren bidez, esku-hartzeen edo egoeraren ebaluazioa egingo da.</li></ul>
<b>Ebaluazio adierazleak</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Urtean eginiko koordinazio bilera kopurua.</li><li>- Bileren funtzionalitatea neurtu eta horiek zenbat ekintza zehatzetan gauzatzen diren.</li><li>- Urtean elkarlanean zenbat ekintza edo esku-hartze egiten diren, eta egokiak ote diren ekintzok.</li></ul>

## AURREZAINZA SELEKTIBOA

<b>PROGRAMA: PREBENTZIOA AISIALDIAN</b>	
<b>PROIEKTUA: GAUEKO AISIALDIA ETA ARRISKU – KALTEEN GUTXITZEA</b>	
<b>Helburu operatiboa</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Gau giroan eman daitezkeen kontsumo arriskutsuen kalteak gutxitzeko baliabideak eskaintzea erabiltzaileei, kontsumoak kaltegarriak, arriskutsuak eta mendekotasunekoak izan ez daitezen.</li></ul>
<b>Helburu espezifikoak</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Droga erabiltzaileei droga kontsumoak dituen arriskuez ohartu, hala nola, kontsumo horren arrazoiak, harekin bilatzen dituzten helburuak eta substantziak erabiltzeko duten moduari buruzko hausnarketa piztu.</li><li>- Substantziari eta horien erabilerari dagokion informazioa eskuragarri izatea gau giroan.</li><li>- Erabiltzailea ohartaraztea legez kanpoko substantzien inguruko osasun kontrol faltaz, eta horien aizunketaz abisua ematea.</li><li>- Arrisku eta kalteen gutxitzearen ohiturak barneratzea pertsonetan, eta horretarako baliabideak eskaintzea, ahal bada, kontsumo gune eta uneetan.</li><li>- Gaueko aisialdia informazio gune egokia eta objektiboa bihurtzea, eman daitezkeen kontsumoak ahalik eta arrisku eta kalte gutxien ekartzeko.</li><li>- Gaueko aisialdirako lokalen jabeak eta langileak trebatzea droga kontsumoari lotutako arriskuen prebentzioaren inguruan.</li></ul>
<b>Aurreikusitako ekintzak</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- TESTING proiektua aurrera eramatea eta jarraipena egitea.</li><li>- DISKOSANA proiektua aurrera eramatea eta jarraipena egitea.</li><li>- Taberna eta diskoteketan informazio orriak eskaintzea (edo beste euskarriren bat), substantzia eta erabileraren inguruan, kalte eta arriskuen inguruan eta abar.</li><li>- Unean uneko beharretara egokitzeko beharrezkoak izango diren ekintzak aurrera eramatea.</li><li>- Droga Gaietarako Zuzendaritzak arlo honetan eskainitako ekintzak baloratu eta aurrera eramatea.</li></ul>
<b>Ebaluazio adierazleak</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Ekintza bakoitzean zenbat pertsonak parte hartzen duen.</li><li>- Pertsona horiek baliabidearekiko erakutsi duten interesa.</li><li>- Gau giroko profesionalek (tabernari, kamarero/a...) egiten duten balorazioa.</li><li>- Erabiltzaileengandik programen jarraipenerako edo berrien ezarpenerako jasotako eskaera kopurua.</li></ul>

## PROGRAMA: PREBENTZIOA AISIALDIAN

### PROIEKTUA: GIZARTE HEZKUNTZAKO ESKU-HARTZEA EREMU IREKIAN

<b>Helburu operatiboa</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Eremu irekian gizarte-hezkuntzako esku-hartzea garatzea, arrisku egoeretan esku hartu eta egoera hezitzaileak bultzatzea.</li></ul>
<b>Helburu espezifikoak</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Nerabe-gazteekin diharduten eragileekin (Gazte Txokoak, ludotekak, Gazte informazio bulegoa, Gaztetxea, ikastetxeetako prebentziorako ordezkariak...) komunikazioa eta elkarlana indartzea, eremu irekian gizarte-hezkuntzako esku-hartzea garatzeari begira</li><li>- Nerabe-gazteek bizi duten errealitatearen diagnostiko eguneratua izatea, aurrez aipatutako eragileekin koordinazioa mantenduz.</li><li>- Eman daitezkeen edo ematen diren arrisku egoeretan esku hartzeko proposamenak egitea.</li><li>- Esparru honetan garatuta dauden esperientzien inguruko informazioa biltzea, esaterako, kale heziketa programak.</li></ul>
<b>Aurreikusitako ekintzak</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Aipatu eragileei eremu irekian gizarte-hezkuntzako esku-hartzea garatzeko helburuaren berri eman eta lan ildo honi arreta berezi eta iraunkorra eskaintzea haiekin ditugun harremanetan.</li><li>- Eremu irekian gizarte hezkuntzako esku-hartze programak aurrera eramaten dituzten herriekin kontaktuan jarri.</li><li>- Sortu daitezkeen proposamen zehatzak Gizarte Sustapenerako batzordera eramatea.</li></ul>
<b>Ebaluazio adierazleak</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Gizarte-hezkuntzako esku-hartzeari begira eragileekin izandako bilerak.</li><li>- Eragileen parte hartze, inplikazio eta asetze maila.</li><li>- Gizarte hezkuntzaren inguruan ezagututako esperientzietatik jasotako ekarpenak.</li><li>- Sortu diren esku-hartze proposamenak bideratu diren ala ez.</li><li>- Lan honetan suertatu diren zailtasunak.</li></ul>

**Programaren erakunde sustatzailea:** Arrasateko Udala.  
**Kokapena:** Gizarte Sustapeneko Saila  
**Programaren zenbakia:** 4  
**Programaren izendapena:** **INFORMAZIOA ETA SENTSIBILIZAZIOA**

<b>INFORMAZIOA ETA SENTSIBILIZAZIOA</b>	
<b>Helburu orokorra</b>	Drogamenpekotasunen fenomenoaren inguruan herritarrak eta gizarte bitartekariak sentsibilizatzea eta informatzea.
<b>Deskribapena</b>	<p><b>Laburpena:</b> Herritarrei droga kontsumoari lotutako gaien inguruko informazioa zabaltzeko ekintzak burutzea, eta baliabide egokiak jartzea gizarte bitartekarien eskura, prebentzio agente aktiboak izan daitezzen.</p> <p><b>Arloa:</b> Prebentzio unibertsala; arriskuen eta kalteen gutxitzea</p> <p><b>Norentzat:</b> Arrasateko biztanle eta gizarte bitartekariak</p> <p><b>Esparrua:</b> herria</p> <p><b>Estrategia:</b> komunitarioa</p> <p><b>Koordinazioa eta kolaborazioa:</b> Ikastetxeetako ordezkariak, Unibertsitatea, gaztetxokoetako begiraleak, herriko elkarteak...</p>
<b>Proiektuak</b>	<p>➤ <u>Aurrezaintza unibertsala</u></p> <p>1. Informazio eta sentsibilizazio jarduerak</p> <p>2. Dokumentazio zentroa</p>

## AURREZAINZA UNIBERTSALA

<b>PROGRAMA: INFORMAZIOA ETA SENTSIBILIZAZIOA</b>	
<b>PROIEKTUA: INFORMAZIO ETA SENTSIBILIZAZIO JARDUERAK</b>	
<b>Helburu operatiboa</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Arrasateko biztanleei zabaltzea prebentzioaren, drogen eta haiei loturiko erabileraren, arriskuen eta mendekotasunen inguruko informazioa.</li></ul>
<b>Helburu espezifikoak</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Herritarrei informazioa zabaltzeko ekintzak egitea.</li><li>- Gai horien inguruan lan egiten duten elkarteekin, entitateekin eta kolektiboekin elkarlanean herrira begira ekintzak antolatzea.</li></ul>
<b>Aurreikusitako ekintzak</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Ekintzak antolatzea (hitzaldiak, prestakuntza saioak, erakusketak, antzerkiak...).</li><li>- Kontuan izanda informazioa ezin dela bereizi gabe eskaini, ekintza guztietan populazio diana eta helburuak ondo finkatu beharko dira, zabalkunde bidea definitzeko.</li><li>- Bilerak egin gai horien inguruan lan egiten duten herrikoekin, elkarteekin, entitateekin eta kolektiboekin elkarlanean aritzeko. Horien proposamenak jaso eta elkarlanaren bidez ekintza eta gai interesgarriak baloratu eta aurrera eramatea.</li></ul>
<b>Ebaluazio adierazleak</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Ekintzetan zenbat pertsonak parte hartu duen, eta zer balorazio egin duten.</li><li>- Herrian prebentzioaren inguruko ekintzak gehitu diren ala ez.</li><li>- Denbora pasatu ahala, ekintza horietara doan jende kopurua nola mantentzen den: igo edo jaitsi egin den edota berdin mantentzen den.</li><li>- Elkarteekin, entitateekin eta kolektiboekin elkarlanean zenbat ekintza jarri diren abian.</li><li>- Zenbat elkarterekin, entitaterekin eta kolektiborekin izan duten harremana.</li></ul>

## PROGRAMA: INFORMAZIOA ETA SENTSIBILIZAZIOA

### PROIEKTUA: DOKUMENTAZIO ZENTROA

<b>Helburu operatiboa</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Osasunerako hezkuntza eta drogamenpekotasunen prebentzioari buruzko material didaktikoa eskaintzea, idatziz nahiz ikus-entzunez, Arrasateko ikastetxeei, elkarteei, gurasoei eta biztanleria guztiari orokorrean.</li></ul>
<b>Helburu espezifikokoak</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Prebentzioaren gai zabalarekin zerikusia daukaten gaiak lantzen dituzten liburuak, aldizkariak, txostenak, CD rom-ak, helbideak eta abar. Prebentzio Zerbitzuak eskuragarri edukitzea, beharrezko duenari mailegu gisan lagatzeko.</li><li>- Materialak gaurkotuak eta interesgarriak izateaz gain, erabilgarriak eta ulerterrazak izatea.</li><li>- Arrasateko biztanleek Dokumentazio zentroa, informazio gune bezala hartu eta baliabide gisa erabiltzea.</li></ul>
<b>Aurreikusitako ekintzak</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Dokumentazio zentroko materialen zerrenda eguneraturik izatea.</li><li>- Beharrezko ikusten diren materialak gureganatzea.</li><li>- Dokumentazio zentroaren berri ematea ikastetxeetan, Guraso Eskoletan, komunikabideetan eta beharrezkoa den guneetan edo lekuetan.</li></ul>
<b>Ebaluazio adierazleak</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Zenbat erabiltzaile.</li><li>- Zenbat mailegu eta zer-nolakoa.</li><li>- Erabiltzaileentzat materialak izan duen erabilgarritasuna.</li></ul>

➤ **ZUZENEKO ARRETA**

**Programaren erakunde sustatzailea:** Arrasateko Udala.  
**Kokapena:** Gizarte Sustapeneko Saila  
**Programaren zenbakia:** 1  
**Programaren izendapena:** **Orientazio eta informazioa zerbitzua**

**ORIENTAZIO ETA INFORMAZIO ZERBITZUA**

<b>Helburu orokorra</b>	Orientazioa eta laguntza ematea droga mendekotasunen prebentzio, laguntza, eta gizarteratzearekin loturiko eskaerei.
<b>Deskribapena</b>	<p><b>Laburpena:</b> Zuzeneko arretaren bitartez informazioa eta orientazioa eskainiko zaie, drogamenpekotasun edo kontsumo arazoengatik kezkatuta edota orientazio eta laguntza beharrea duen kontsumitzaileei, hauen familiei, lagunei eta ingurukoei.</p> <p><b>Arloa:</b> prebentzioa, laguntza eta gizarteratzea  <b>Norentzat:</b> Kontsumitzaileei edota haien familiei, lagunei, ingurukoei.  <b>Esparrua:</b> komunitatea  <b>Estrategia:</b> komunitarioa  <b>Koordinazioa eta kolaborazioa:</b> Tratamendu zentroak, Osasun Mentala, Udaleko Gizarte langileak, Gizarteratze teknikaria, Enplegu eknikaria...</p>
<b>Proiektuak</b>	<p><i>1. Orientazio eta informazio zerbitzua</i></p>

**PROGRAMA: ORIENTAZIO ETA INFORMAZIO ZERBITZUA****PROIEKTUA: ORIENTAZIO ETA INFORMAZIO ZERBITZUA**

<b>Helburu operatiboa</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Erantzuna ematea droga mendekotasunen prebentzio, laguntza, eta gizarteratzearekin zerikusia daukaten eskaerei.</li></ul>
<b>Helburu espezifikoak</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Informazioa eta orientazioa eskaintzea droga arazoak dituzten pertsoneri eta haien familiei, mendekotasuna gainditzeko.</li><li>- Arazoa daukan pertsonarekin eta familiarekin zuzenean esku-hartzea, baliabideen inguruko informazioa eskaini eta baliabide egokira bideratzeko.</li><li>- Beharrezko adituekin edo eragileekin koordinazioa eta harremanak mantentzea, kasuak eduki ditzakeen faktore ugariari modu egokian aurre egiteko.</li><li>- Kasuaren jarraipena egitea, biderapen egokia egin den ala ez jakiteko eta egoera berriei erantzuteko.</li><li>- Zerbitzuaren erabilera gehitzea.</li><li>- Arlo honetan Prebentzio teknikariak etengabeko prestakuntza egitea, egin beharreko esku-hartzeak geroz eta egokiagoak izan daitezen.</li></ul>
<b>Aurreikusitako ekintzak</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Eskaera egin duen edo duten pertsonekin elkarrizketak aurrera eramatea, arazoaren ezaugarriak, eskaera, beharrak eta abar zedarrizteko.</li><li>- Arazoa daukan pertsona etortzen ez bada, ahalegintzea berarekin elkarrizketa bat izaten.</li><li>- Beharren diagnosis egin ondoren, inplikaturiko pertsoneri adieraziko zaie eta horren inguruan erabaki bat hartuko dute. Azken hitza haiek izango dute, eta ez Prebentzio Zerbitzuak.</li><li>- Tratamendu edo gizarteratze prozesuetarako Gizarte Langile eta Gizarteratze teknikariarekin koordinatzea kasua.</li><li>- Beste baliabide batera bideratuz gero, baliabidearekin eta sendiarekin edota pertsonarekin harremana mantenduko da, berriz ere Prebentzio Zerbitzuaren laguntza behar izanez gero, gurekin harremanetan jarri daitezen.</li></ul>

	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Herrira plazaratu zerbitzuaren helburuak, ezaugarriak eta harreman bideak hainbat modutan: Arrasateko komunikabideak, zuzeneko transmisioa ikastetxeei, elkarteei, gurasoei, pertsona guztiei.</li> <li>- Prebentzio teknikariak prestakuntza ikastaroetan parte hartzea.</li> <li>- Beste zerbitzu edota baliabide espezializatuekin koordinatzea.</li> </ul>
<p><b>Ebaluazio adierazleak</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Zenbat eskari eta zer-nolakoak.</li> <li>- Gizarte Langileen bidez, osasun zerbitzuetatik eta beste baliabide batzuetatik bideratzen diren kasuen kopurua eta mota.</li> <li>- Egindako orientazioen kopurua, bideratutako baliabidearen egokitasuna, pertsona edo sendiak bideratutako baliabidearekiko duen asetze maila.</li> <li>- Prebentzio teknikariak egindako esku-hartzearen egokitasuna, pertsona edo sendiak prebentzio teknikariak eginiko esku-hartzearen inguruan egiten duen balorazioa.</li> <li>- Zenbat jarraipen egin den.</li> <li>- Zenbatekin izan den harremana.</li> <li>- Prebentzio teknikariak prestakuntza ikastaroen bidez jasotako informazioaren baliagarritasuna, praktikotasuna.</li> </ul>

## **7. PLANAREN EBALUAZIOA**

Drogamenpekotasunen prebentziorako V. Plan honetan Arrasateko Udalerrian drogamenpekotasunen esparruan 2004tik 2008ra egingo den esku-hartzea zehaztu bada ere, urtero planaren ebaluatuko da, izan daitezkeen behar berrietara egokitzeko.

Balorazio horretan, besteak beste, honakoak aztertuko dira:

- Planean zehaztuta dauden programak eta proiektuak aurrera eramaten ari diren edo ez.
- Burutu diren programa eta proiektuetan zehaztutako helburuak lortu diren edo ez.
- Helburuei, ekintzei, proiektuei edota programei dagokienez aldaketak egitea, zerbait kentzea edo gehitzea komenigarria den edo ez.